



Diru sarrerak

Behin modulo unitario bakoitzaren kostuak definituta, hauei elektronika zein informatika kostuak gehituko zaizkio. Behin hau zehaztuta, irabazi-margen bat ezarriko zaio bukaerako produktuaren prezioa zehazteko.

Produktu pertsonalizatuen kasuan, erabilitako modulu bakoitzaren kostua kontuan hartuko da, honi informatika eta elektronika kostuak gehituko zaizkio, eta bukerako prezioa lortzeko irabazien margena ezarriko zaio.

Produktuetan ezin da ahaztu %21-eko BEZ-a gehitu behar dela.

Mantenuari dagokionez, adostutako kontratu bat ezarriko da, urtean asistentzia kantitate minimo bat daukana bere baitan. Hileroko kuota bat ezarriaz, Usagar S.Koop-ek lehentasuna eskainiko dio empresa kontratatzaileari, momentuko asistentzia eskainiaz.